 - 10.- Lan-ingurumenaren kontrolak
 - 11.- Istripu edo gertakarien azterketak egitea
- Ingurumena
- 13.- Bestelako jarduerak

1.- Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak

2008an egindako bilera: urtarrilaren 30ean

2.- Prebentzioaren inguruko plangintza

Gipuzkoako Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordeak eginiko bileran honakoak aurkeztu dira:

- 2007an egindako jardueren laburpena.
- 2008ko prebentzioaren inguruko plangintza.

3.- Arriskuen ebaluazioa

Arriskuak jardueraka ebaluatzeko lanak amaitu egin dira 2008an zehar.

Alabaina, oraindik arriskuak ebaluatzeko metodologia negoziatzeko dago campus arteko Batzordean (ISTAS XXI).

4.- Prebentzio-neurriak exekutatzea

- Suhiltzaileei dokumentazioa uzteko postontziak ezarri dira ikastegi guztietan, 3 hauetan izan ezik: Soroa Etxea, Asuncion Etxea eta Arbide II Dorrea.
- Irailean, suteen aurkako babeserako seinaleztapena ezarri eta Korta eraikineko ebakuazioa egin da.

- Azaroan, suteen aurkako babeserako seinaleztapena amaitu eta I.M. Barriola eraikina (ikasgelategia) ebakuatu da.
- Korta eraikinean lehengaiak eta hondakinak pilatzeko aretoak egokitu dira.
- Kimika Zientzien Fakultatean agente biologikoekin lan egiten duten laborategiei behin-behineko akreditazioak eman zaizkie (1 eta 2 babes mailak)
- Kimika Zientzien Fakultateko laborategietan arrisku biologikoko seinaleak ipini dira (1 eta 2 babes mailak)
- Zuzenbide Fakultateko eraikinen sektorizazioa amaitu da.

5.- Enpresa-jardueren koordinazioa

Jardueren koordinazioa hainbat kontrataziorekin:

- Eulen (garbiketa)
- Delta (segurtasuna)
- Goroldi (lorenzaintza)

6.- Larrialdi-planak

6.1.- Larrialdi-planei buruzko txostenak eguneratzea

Idom enpresak hainbat larrialdi-planen zirriborroak aurkeztu ditu 2008. urtean zehar, ikastegi hauei dagozkienak hain zuzen ere:

- Arkitektura G.E.T.
- Irakasleen U.E.
- Enpresa Ikasketen U.E.
- Errektoreordetza
- Pabiloia (Zuzenbide F.)
- Zuzenbide Fakultatea
- Informatika Fakultatea
- Filos. eta Hezk. Z. Fakultatea
- Psikologia Fakultatea
- Kimika Zientzien Fakultatea
- Soroa Etxea
- Asuncion Etxea
- Arbide II Dorrea

Larrialdi-planak eta norberaren babeserako planak eguneratzeko lana Ondoan enpresari esleitzen zaio.

- U.E. Politeknikoa
- Erizaintzako U.E./Medikuntzako irakasgunea
- Barriola eraikina (ikasgelategia)
- Ingeniaritza Teknikoko U.E. (Eibar)

6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta simulakroak egitea.

Ezarpenari dagokionez, larrialdi-ekipoak izendatu/eguneratu ziren ikastegi hauetan:

- Kimika Zientzien F.
- U.E. Politeknikoa
- Enpresa Ikasketen U.E.
- Korta eraikina

Urrian, UPV/EHUren anagrama duten petoak banatu dira ikastegi ezberdinetan. Larrialdia egon edo simulakroa egingo balitz, eraikineko larrialdietarako taldeek erabili beharko lituzkete.

2008. urtean ez da simulakrorik egin. Horren arrazoia hauxe: Gipuzkoako Campuseko eraikinen larrialdi-planak eta norberaren babeserako planak idazten/aldatzen ari direla urte horretan.

2008ko urrian, Kimika Zientzien Fakultateari hilabete horretan zehar simulakro bat burutuko zela esan zitzaien baina ez zitzaien esan ez zein egunetan ez zein ordutan izango zen. Gauzak horrela, simulakroaren bezperan, alarma bat piztu zen. Eraikineko prestonek simulakroa zela pentsatu zuten eta 3 minututan eraikin oso hustea lortu zuten. Beraz, ebakuazioa erabateko arrakasta izan zela deritzogu.

7.- Prestakuntza

- Azaroak 28, 9:00etatik 14:00etara, arrisku biologikoari buruzko ikastaroa Farmazia Fakultatean. Guztira 23 lagun izan dira bertan (AZP, PII eta ikasleak).
- Harrera prestakuntza/informazioa: medikuaren azterketa egin ostean, langile guztiei gutxieneko prestakuntza eskaini zaie ordu erdiz. Euren lanpostuak bereziki arriskutsuak badira, luzeagoak izan daitezke.

Hala ere, lan-zama dela eta, ezin dugu ziurtatu prestakuntza/informazioa langile berri guztiei eman zaiela.

8.- Aldizkako kontrolak Segurtasun-ikuskapenak

8.1. 8.1. Aldizkako kontrolak

2008. urtean zehar suteen aurkako babeserako elementuak berrikusi dira hiru hilabetean behin eta baita campuseko ikastegi bakoitzean seinaleztapena egin ere.

8.2. Segurtasun-ikuskapenak

- 2008ko urtarrilean, bide-segurtasunaren kontrola egin da Ibaetako Campusean.
- 2008ko maiatzean sarrerak kontrolatzeko sistema berriak larrialdi eta ebakuazioei buruzko arautegia betetzeko zer baldintza izan behar dituen zehaztu da, IKTen (Informazio- eta Komunikazio-Teknologien) Gerenteordetzaren eskariz.
- Kimika Zientzien Fakultateko laborategiei astero ikuskapenak egiteko programa pilotua abian jarri da. 2009an jarraituko da.

9.- Arauzko ikuskapenak

Industria-arautegiaren menpeko elementuak nahiz arrisku espezifikoa dutenak ikuskatu dira; ikuskapenak Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak gestionatu ditu.

- Galdara gela
- Transformazio zentroak
- Sorgailuak
- Igogailuak
- Tximistorratzak
- Eta abar.

Beste ikuskapen batzuk:

- Suteen aurkako babeserako instalazioen egoera ikuskatzea. Sei hilean behin
- Astean behin, Kimika Zientzien Fakultateko (Donostia) laborategien ikuskapenak.
:_____
- Segurtasunerako eta ebakuaziorako seinaleen egoeraren aldizkako ikuskapenak. Hiru hilean behin.
- Campuseko obren egoeraren hileroko ikuskapenak.
- Agente kimikoekin lan egiten duten laborategien aldizkako ikuskapenak.
- Hainbat instalazioren ikuskapenak:
 - Agente biologikoak eta Genetikoki Eraldatutako Organismoak.
 - Instalazio erradiaktiboak
 - Erradiazio elektromagnetikoak sortzen dituzten ekipoak.
 - Lanerako ekipoak (egokitzeke zain)

10.- Lan-ingurumenaren kontrolak

- datelstransMonth07Day03Year03/07/2008: Kimika Zientzien Fakultateko estalkian produktu kimikoen neurketak (emaitzen laburpena hurrengo orrian)
- Erizaintzako U.E./Medikuntzako Irakasgunean ezin izan dira ehun asfaltikoagatik sortutako lurrun organikoak neurtu, izan ere, oso eguraldi txarra egin du etengabe (eguzki-erradiazio bizirik ez zegoen).

Kimika Zientzien Fakultateko neurketen emaitzen laburpena (2008/07/03):

13. Resumen de Resultados

A continuación se presenta la ficha resumen de los resultados y conclusiones de la evaluación de riesgo higiénico, en el cual se recogen los puestos de trabajo objeto del presente informe con los agentes químicos analizados, el resultado de los índices, la frecuencia de las mediciones recomendadas para confirmar el tipo de exposición y la magnitud de riesgo numérica que sirva de referencia con la evaluación inicial de riesgos para definir el perfil de riesgos del puesto de trabajo

FICHA RESUMEN RESULTADOS DEL INFORME						
EMPRESA: UNIVERSIDAD PAIS VASCO						
FECHA: 3/7/2008						
PUESTO DE TRABAJO	AGENTE QUÍMICO / GRUPO AGENTES QUÍMICOS	I _{exp}	I _{ac}	I _{total}	Mediciones periódicas.	Magnitud de riesgo
Químicos laboratorio organometálicos	Ácidos	0,073	0,044	-	Reevaluación en caso de cambio de las condiciones de trabajo	ACEPTABLE
Químicos (234) de Orgánica	Vapores Orgánicos	0,020	0,005	0,020	Reevaluación en caso de cambio de las condiciones de trabajo	ACEPTABLE
Química de análisis de polímeros	Acetonas	0,023	0,009	0,023	Reevaluación en caso de cambio de las condiciones de trabajo	ACEPTABLE
Almacén de productos químicos (puerta abierta y con ventilación forzada)	Vapores Orgánicos	0,062	0,011	0,062	Reevaluación en caso de cambio de las condiciones de trabajo	ACEPTABLE

11.- Istripu edo gertakarien azterketa

2008an campusean 25 istripu gertatu dira.

Horietatik 9 istripu in itinere izan dira.

ZK.	Zauritua	Istripuaren azalpena	Oharrak
1	-----	Leherketa eta sutea	Kimika Zientzien F.
2	AZP	Hatza harrapatu	
3	Irakaslea	Trapezioko kontraktura	<i>"In Itinere"</i>
4	AZP	Zaintiratua orkatilan	<i>"In Itinere"</i>
5	Bekaduna	Saio-hodiarekin ebakia	
6	Irakaslea	Lepoko zartakoa	<i>"In Itinere"</i>
7	AZP	Tunel karpianoaren sindromea	Ez da laneko gaixotasuna kontsideratzen
8	AZP	Apala hankara erortzea	
9	Irakaslea	Erori eta eskumuturra haustea	
10	Ikaslea	Eskaileretan erortzea	
11	Ikaslea	Monomeroak isurtzea	Dermatitis akutua
12	Irakaslea	Motorretik jaustea Kontusioa	<i>"In Itinere"</i>
13	AZP	Zaintiratua orkatilan	Eskaileretan erortzea
14	AZP	Zaintiratua eskuan	Eskaileretan erortzea
15	AZP	Lepoko kontraktura	
16	AZP	Lepoko zartakoa	<i>"In Itinere"</i>
17	AZP	Lepoko zartakoa	<i>"In Itinere"</i>
18	Bekaduna	Bizikletatik erortzea	<i>"In Itinere"</i>
19	AZP	Lepoko zartakoa	<i>"In Itinere"</i>
20	AZP	Muskuluak eta eskeletoa	
21	Irakaslea	Muskuluak eta eskeletoa	
22	Irakaslea	Istripu ondorengo gaixoberritzea	
23	AZP	Autobusetik erortzea	<i>"In Itinere"</i>
24	AZP	Arratoi batek kosk egitea	
25	AZP	Kaiola baten aurkako kolpea	

Aztertutako gertakariak, guztira: 15

Jakinarazi zaizkigun istripu eta gorabehera guztiak ikertu dira. Alabaina, lan-zamagatik, ezin izan da dokumentazio guztia SEHTRA programan sartu.

Gertakari guztien berri izatea falta da.

- Kimika Zientzien Fakultatean leherketa eta sutea: 2008/01/09an kimika organiko makromolekularraren ikerkuntzarako laborategian (1. solairuan) leherketa bat eman zen eta ondoren, bi fokutako sute bat:



Ikerketaren emaitza:

- Airean alkohol isopropiliko lurrunen pilaketa bat gertatu da kontzentrazio altuetan, %2tik gora hain zuzen ere (leherkaria), xurgapen-kanpian.
- Kanpaiaren erauzketa-motorra izan da sutze-puntua. (bitrinaren antzinatasuna: 21-22 urte)
- Leherketak bitrinaren estalkiko gresa eta destilatzeko muntaia hautsi ditu. Horren ostean, bi fokutako sutea hasi da.
 - Alkohol destilatuko botilaren kokagunea estalkian, ondoren zorura hedatu zen likido suharbera dela-eta Sute hau UPV/EHUko langileek itzali dute alboko su itzalgailuekin.
 - Erauzketa-kanpaia edo bitrinaren gorako zatia. Behin eta berriz saiatu arren, UPV/EHUko langileek ezin izan dute foku hori itzali. Horregatik, Donostiako suhiltzaileen esku hartzea beharrezkoa izan da sutea kontrolatu eta amatatzeko.
- Zuzentzeko neurriak hartu dira, honakoak:
 - Destilazio-zutabeen erregulagailuak aldatu egin dira.
 - Destilazio-operazioak gutxitu dira.
 - Kanpai “zaharrak” aldatzeko azterketak egin dira, estalkian motorrak ezarriaz.
 - Laborategi horretan 4 kanpai berri jarri dira.
 - Kanpaien prebentzioko mantentze-lanak. Prestakuntza/informazioa.

12.- Ingurumena

- Ingurugiroaren Gestio teknikiariaren lanari esker lan osagarriak egin dira.
- EKOSCAN (Errektoreordetza, eta abar) hobekuntza-taldeetan parte hartu da.
- Ingurugiroa hobetzeko ekintzak burutu dira.

13. Bestelako jarduerak

- BATUBIDERen aldizkako bileretan parte hartzea.
- Donostia International Physic Centerreko (DIPC) hainbat ekipok sortzen dituzten soinu-mailak (zarata) neurtzea.
- Ordenagailuek sortutako zarata neurtzea (8).
- Indarrean dagoen arautegia identifikatu eta betetzen den ala ez ebaluatzea.
- ARCHIMEDES-CIVITAS ikerketarako proiektu europarrean parte hartzea, Donostia hiriko garapen iraunkorrari buruzkoa dena.
- Gipuzkoako Campuseko Jarduera-planaren diseinuan, edukietan eta jarraipenean parte hartzea, Kalitate, Ingurumen eta Prebentzio alorretan.
- Gipuzkoako Campuseko Gestio-taldean parte hartzea.
- Hala eskatuz gero, lanpostuen eta laneko lekuen azterketa zehatzak egitea.
- Prebentzio-planaren behin betiko idazketan parte hartzea (Iñigo Legorburuk zuzendutako idazketa-taldean bi urtez lanean aritu ostean)
- Egitear dago: atmosfera leherkorrak (ATEX)
- Prebentzioarekin zerikusia duten campuseko beste lan-arlotan parte hartzea (bide-segurtasuna, Arkitektura eta Lanen Zerbitzuko asteroko bilerak, eta abar)

INGURUMEN-GESTIOA

AURKIBIDEA

- 1.- Sarrera
- 2.- Hondakinen gestioa eta ingurugiroari lotutako bestelakoak
- 3.- Legeztatzeak eta baimenak
 - 3.1. Jarduera-lizentziei buruzko proiektuak
- 4.- Ingurugiroaren arloko egiaztagiriak
- 5.- Prestakuntza
- 6.- Hondakinen kanpoko gestioaren eskumena Prebentzio Zerbitzura eskualdatzea.
- 7.- Hondakinen ekoizpenari buruzko datuak
- 8.- Gogobetetze-mailari buruzko inkesta

1.- Sarrera

Euskal Herriko Unibertsitateak aniztasun zabala du ingurugiroari lotutako gaietan:

- a) Hondakinak: elektronikoak, arriskutsuak, sanitarioak, erradiaktiboak
- b) Kolektorerak egindako isurketak
- c) Laborategietatik eta berokuntza-sistematik sortutako gasen emisio-fokuak
- d) Hondakinak bildu eta tratatzeko azpiegiturak
- e) Gas eta energia-instalazio osagarriak
- f) Era askotako lehengaien kontsumoak eta abar

Horregatik, litekeena da ingurugiro-alorrean indarrean dagoen egungo arautegi zabalak unibertsitatea ukitzea.

Gainera, barne-jarduerako baliabideen kontsumoa garapen jasangarriarekin bat gestionatu beharrak konplexutasuna gehitzen dio.

2.- Hondakinen gestioa eta ingurugiroari lotutako bestelakoak

Kanpo-kudeatzaileak onartutako taldeen arabera hondakin toxikoen etiketatze berriak, indarrean dagoen legedia betetzeaz gain, nahasketa desegokiak eta istripuak ekiditen laguntzen du. Era berean, hondakinen gestioaren kanpo-kostua optimizatzen da, jatorrian sailkatzeko balio baitu. Etiketatze-modu berri hori zentro gehiagotara zabaltzen ari gara eta erabiltzaileek begi onez ikusten dute. Beste alde batetik, etiketatze horretan talde berriak sartzen ari gara, jatorrizko banaketa erraztearren eta arriskuak gutxitzeko.

Biltegietan isurketen aurkako erretentzio-sistemak instalatzen ari gara. Horrez gain, hobekuntzak egin dira suteen aurkako babesaren segurtasunean eta biltegitratze-moduan bertan.

Hondakin elektrikoak eta elektronikoak 208/2005 Errege Dekretuaren bidez gestionatzen dira. Izan ere, hondakin arriskutsu gisa gestionatzeak baino kostu txikiagoa dute eta hondakin bereziak biltegitratzeko leku gutxiago behar dute.

2008. urtearen amaiera-aldera Barne Ministerioaren eskakizun bat heldu da, substantzia sailkatu eta sailkatu gabeei dagozkien datuak betetzeari buruzkoa. Substantzia horiek erabil ditzaketen sailetara bidali zen eskakizuna, eta Organo eskatzaileei eskatu eta bidalitakoa erantzun dute.

3.- Legeztatzeak eta baimenak

Ingurugiroaren arloko gestioaren hobekuntzari hertsiki loturik dago, hala kanpoko gestioaren hobekuntzari nola barrukoarenari.

UPV/EHUren jarduerak legeztatzeko esleipena behin eginda, hiru aukera ditugu: jarduera exentua, kaltegabeak eta sailkatuak. Hauetaz gain, jarduera burutzeko behar diren energia eta bestelako sargaiak sortzen dituzten instalakuntzak legeztatzeko beharra ikusten da.

2007an zehar prestatu eta abian jarri da premia horri erantzuten dion estrategia Kontuan izan behar da UPV/EHUko ikastegietan mota guztiak ematen direla. Unibertsitatekoak diren zentroetan egiten diren jarduerak unibertsitateari dagozkio nagusiki, baina badaude unibertsitateko zentroak izan arren kanpoko enpresei dagozkien jarduerak burutzen dituztenak; eta, baita ere, unibertsitatekoak izateke unibertsitateari dagozkion jarduerak egiten dituzten zentroak.

Gainera, kontuan hartu behar da egitura bikoitza (ikastegiak-sailak, zerbitzu nagusiak-campusetako gerenteordetzak) eta egoera bakanak (institutoak, katedrak eta abar). Hori dela-eta, galdera-sorta desberdinak prestatu dira, beharrezko informazio guztia eskuratu ahal izateko. Dena dela, galdera-sorta guztiek ezaugarri berari erantzuten zioten: ulergarritasunaren eta ugaritasunaren arteko oreka bilatu nahiari.

Erantzuna ona izan da oro har eta, horrexegatik, UPV/EHUko zentro gehienei buruzko diagnostikoaren txostenak dauzkagu une honetan. Diagnostikoaren txostena jarduerari buruzko proiektua egin aurretik eman beharreko urratsa da, edota, zentroaren ezaugarrien arabera eta zentroa kokatuta dagoen udalaren eskakizunaren arabera, proiektua egin behar ez izan arren aurkeztu beharreko eskariaren aurreko urratsa. Une honetan, Araban eta Gipuzkoan dagoeneko hainbat jarduera-proiektu aurkeztuta daude.

3.1. Jarduera-lizentziei buruzko proiektuak

Guztira 8 dira lizentziak emateko eskumena duten udalak, honako hauek hain zuzen ere: Donostia, Eibar, Vitoria-Gasteiz, Bilbo, Leioa, Erandio, Barakaldo eta Portugalete.

Obrak egiteko lizentziak lortu ahal izateko, hauetako udal batzuk jarduera legala izatea eskatzen dute.

Beste hainbatetan aldiz, jarduera- eta irekitze-lizentziak edukitzea beharrezkoa da ingurugiroaren arloko 3. mailako egiaztagiria lortzeko.

Proiektuak bi fase ditu, honakoak:

1. FASEA: eraikina legeztatu ahal izateko, eraikin bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egitea. Edozein neurritan galdetegiak bete zituzten eraikinetan fase hau amaituta dago.

2. FASEA: epe ertain eta luzea: UPV/EHUko eraikinetan jarduerak garatu ahal izateko beharrezkoak diren lizentziak lortzeko prozedurak hastea. Fase hau abian da. Une honetan, dagokion Campusetako Errektoreordetza bakoitzak hala eskatuta, honako ikastegien jarduera-lizentziak prestatzen ari dira edo dagoeneko prest daude: Enpresa Ikasketen U.E., Farmazia Fakultatea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Z. F. eta Korta eraikina. Fase honetan, Campusetako Errektoreordetzak eta UPV/EHUK kontratatutako enpresak harreman zuzenak eta etengabeak izaten ari dira.

Ingurugiroaren Gestioko teknikaria proiektuaren koordinatzaile izendatu zen 2007aren hasieran.

4.- Ingurugiroaren arloko egiaztagiriak

Gaur egun, ingurugiroaren arloko egiaztagiriei dagokienez, hiru erreferentzia erabiltzen dira oinarri gisa gure inguruan

Alde batetik, ISO 14001 daukagu, nazioartean aitorten zabala duena. Europako mailan, berriz, EMAS egiaztagiria dago, eta tokiko mailan Ekoscan.

ISO 14001:2004 eta EMAS Ingurugiroa Gestionatzeko Sistemen egiaztagiriak emateko balio duten arauak dira. ISO 14001 bera sarri erabiltzen da EMAS arauaren araberrako egiaztagiria eskuratu aurreko urrats gisa. Izan ere, azken hori zorrotzagoa da eta hainbat eskakizun bete behar dira: ingurugiroaren arloko adierazpena, hasierako derrigorrezko ikuskapena, zeharkako ingurugiro-alderdien gaineko gogoeta, jendeak eskura ditzakeen ebaluazio-irizpideak eta hornitzaile/azpikontratatistak ingurugiro-politikan inplikatzeko.

Edozelan ere, ISO 14001 eta EMAS arauak epe laburrera hainbat baldintza bete beharra dakarte, hala nola langile espezializatuen egitura, baliabide tekniko eta ekonomiko jakin batzuk, aktibo finko eta zirkulanteetako inbertsio-politika eta legediaren betearazpen-maila handia. Hori guztia dela-eta, enpresa eta erakunde askotan ez da izaten bideragarria epe laburrera.

Erdi bideko aukera moduan, gure ingurune geografikoan Ekoscan arauari jarraituz egiaztagiriak lor daitezke. Arau honek ingurugiroari buruzko jokaera hobetzeko bideak ezarri eta neurtzeko aukerak ematen ditu honako hauei esker: hobekuntza-emaitzak egiaztatu egiten dira, langileen parte hartzea posible egiten du, ingurugiroari dagozkion adierazleak erabiltzen ditu, hobetzeko alorrak lehenesten ditu, alderdi ekonomikoak, teknikoak eta ingurugiroarenak kontuan izaten ditu eta hobetzeko plana ezartzen du, jarraipena eta neurketa barne hartzen dituen.

Azken urtean beste ikastegi batzuek ekin diete ingurugiroaren arloko egiaztagiriak lortzeko prozesuei. Kontuan izan behar da hondakin arriskutsuak ekoizten dituzten zentroak egiaztagiria eskuratzeko lanean hasi direla, eta horrek esan nahi du ikuskapena eta ondorengo egiaztapena egiten duten enpresak ontzat ematen hasi direla kutsaduraren prebentziorako Prebentzio Zerbitzuak proposatutako neurriak.

Eraikinak eta instalazioak behin legezkatuta, errazagoa izango da ingurugiroaren arloko egiaztagiriak behin betiko lortzea.

Aurten jarraian aipatzen direnak egiaztatu dira: Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza, Erizaintzako U.E eta Psikologia Fakultatea.

5.- Prestakuntza

Azalpenak ematea konbentzitzeko modu ona da. Ingurugiroaren alorreko gestioaren barruan ahalegintzen gara azaltzen laborategietan "in situ" jarduteko prozedurak, laborategi edo zentro bakoitzak izan ditzakeen arazoak konpondu ahal izateko eta, bide nabar, jendea kontzientziatu, konfiantza eman eta guztientzako irizpide berak ezartzeko eta, modu horretara, giza baliabideen eskasiari zein informazio-premiei erantzuna eman ahal izateko.

Prebentzioaren inguruko oinarriko ikastaro baten barnean, hondakinak gestionatzeko ikastaroa eskaini zaie Biofisika Institutuko langileei. Ikastaroan azaldutakoa biltzen duen eskuliburua eman zitzaizen parte-hartzaileei, bost atal hauetan banatuta:

- 1.- Hondakin arriskutsuen gestioa
- 2.- Hondakin sanitarioak.
- 3.- Hondakin elektronikoak.

4.- Hondakin erradiaktiboak.

5.- Hondakin biologikoak.

Prebentzio Zerbitzuak burutzen duen ingurugiroaren gestioak lortu dituen emaitzen berri ere eman da ikastaro honetan.

Prestakuntza eta informazioa emateko modu apropos bat eredu izatea da. Kimika Fakultateko kide batek Prebentzio Zerbitzuari bere esker ona adierazi zion, izan ere, hari esker laborategi batean piztu zen sute bat mugatu eta eraikineko gainontzeko lekuetara hedatzea ekidin zen. Gertaera hau 2008. urtearen hasieran jazo zen.

6.- Hondakinen kanpoko gestioaren eskumena Prebentzio Zerbitzura eskualdatzea.

2008ko hasieran dokumentuen nahiz fakturazioaren kanpoko gestioaren eskumenak Prebentzio Zerbitzuari eman zaizkio.

7.- Hondakinen ekoizpenari buruzko datuak

Hondakinen kanpoko gestioari buruzko azken datuak hauek dira:

- Hondakin sanitarioak. 2008. urtea.

Guztira: 1.366 Kg.

Motaren arabera:

Hondakin zorrotz eta ziztakariak: 114 kg

Sendagaiak eta hondakinak 116 Kg.

Bestelako hondakin sanitarioak 1.136 Kg.


Campusaren arabera (kilogramoak, gutxi gora behera)	2008. URTEA.	2007. URTEA.
Araba	964	173
Bizkaia	290	149
Gipuzkoa	112	89

Arabako Campuseko hazkuntza bereziki nabaria da ADN bankua dela-eta.

- Hondakin arriskutsuak. 2008. urtea.

	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002	2001	2000	1999	1998
Baztertutakoak	36	29	31	36	33	25	25	13	19	18	11
Kanpoko zerbitzuen orduak	115,5	134	109,5	77	110	72	88	78	88	90	83
Manipulatutako ontziak	0	0	0	0	108	12	133	81	90	112	68
Hondakin tonak	36,2	50,0	39,2	28,3	35,9	37	48,2	26,5	26,4	27,1	18,3
	95	17	91	45	57	37	01	69	56	33	24

EVOLUCION ANUAL

Motaren arabera:

Identifikatutako laborategiko hondakinak	7.049 Kg.
Disolbatzaile halogenatuak	8.154 Kg.
Disolbatzaile ez halogenatuak	4.477 Kg.
Metal astunak dituzten disoluzioak	2.123 Kg.
Disoluzio ezorganiko alkalinoak	1.341 Kg.
Disoluzio ezorganiko azidoak	4.082 Kg.
Bestelako urtsuak edo likido organikoak	1.868 Kg.
Lanpara fluoreszenteak	0 Kg.
Errebelatzeko likidoak	228 Kg.
Elektrohigarurako lohiak	297 Kg.
Emultsioak eta taladrinak	363 Kg.
Solido organiko polimerizatuak	340 Kg.
Solido ezorganikoak	893 Kg.
Bestelako solido organikoak	597 Kg.
Merkurio metalikoa	18 Kg.
Olioak	230 Kg.
Ontzi hutsak >= 50 l	709 Kg.
Ontzi metalikoak < 50 l	423 Kg.
Beruna daukaten bateriak	59 Kg.
Pastak eta pinturak	37 Kg.
Finkagarriak	164 Kg.
Disol. azido eta basiko sukoiak	1.191 Kg.
Bromuroz kutsatutako materialak	734 kg
Aerosol teknikoak	26 Kg.
Beirazko ontziak	1.326 Kg.
Olio-iragazkiak	23 Kg.

Campusaren arabera (kilogramoak, gutxi gora behera)	2008. URTEA	2007. URTEA
Araba	6.800	4.000
Bizkaia	17.000	30.000
Gipuzkoa	12.500	16.000

Esan beharra dago bereziki Bizkaiko Campusean eta Zientzia eta Teknologia Fakultatean, hondakin arriskutsuen produkzioa jeitsi egin dela apur bat. Prebentzio Zerbitzuak aholkuak eman dizkie hondakinen barneko gestioaren inguruko gaietan eta baita hauen instalakuntzetan ere. Horren adibide da biltegirako ingeniari-tza proiektu bat aurkeztu dela etorkizunean burutzeko.

2008a baino lehen, Prebentzio Zerbitzuak batik bat barneko gestioa hobetzeko ekintzak burutzen zituen fase ezberdinetan: batetik, banatzea, identifikatzea, biltzea eta segurtasun neurriak ezartzea eta, bestetik, indarrean zegoen arautegiarekin bat zetozen prozesu eraginkorrak ezartzeko beharraren inguruan prestakuntza eta informazioa ematea. Kanpoko gestioan egiten genituen ekintzak oso zehatzak izan ohi ziren eta hondakin berriak onartzearekin zerikusia izaten zuten.

2008ko hondakin arriskutsuen produkzioaren inguruko datuak aztertzen baditugu, ondorio interesgarriak ateratzen dira, izan ere, barneko zein kanpoko gestio-prozesuetan hobekuntzak nabaritzen dira.

1.- EAEko Ingurugiro Organoak baimenduta, fluoreszenteak dagoeneko ez dira hondakin arriskutsu moduan gestionatzen, hondakin elektriko/elektroniko moduan baizik. Fluoreszente bat erosterakoan salneurriaren zati bat bere osagaien birziklapen eta ezabapenerako da. Beraz, hasiera batean gehiago ordaintzen dugunez, ez luke inongo zentzurik izango gestore bati beste zenbaterako bat ordaintzea hondakin arriskutsu moduan tratatuak izateko.

2.- Banaketa egokiak eta jatorrian etiketak ondo jartzeak etorkizunean gertaerak edota istripuak ekiditeko bideak dira. Halaber, nahasketa bat emango balitz, hondakina garestiago den beste batean berriro kalifikatu beharko litzateke eta horrek kostuak ugarituko litzuzke. Hondakin ez halogenatuak hondakin halogenatuen bikoitzak dira. Horrek, honakoa adierazten du: batetik, jatorrian egiten den banaketa hobetu egin dela eta, bestetik, dirua aurrezten dela, izan ere, bi hondakin hauen kanpoko gestioaren prezioak %50eko alde du.

3.- Hondakin arriskutsuen ekoizpena %28 jaitsi da, hots, 50 tonatik 36 tonara. Batik bat Bizkaiko Campusean eta Zientzia eta Teknologia Fakultatean eman da jaitsiera hau. Horrek arrazionalizazio handiagoa eta hondakin gestioan aurreztea suposatzen du.

4.- Hondakinen ekoizpena jaitsi denez, ekoizpen handiena duten ikastegietan baimen eta legeztatzeak lortzea erraztu egingo da nabarmen.

5.- Hondakin berriak sortu dira, batak olio-iragazkien kidegokoak eta besteak beirazko ontzienak. Onarpen formalaren zain gaude.

6.- Ontziak stockean edukitzeak erabiltzaileei banaketa azkarrago egitea ahalbidetu du eta baita logistikako kostuak optimizatzea ere.

7.- UPV/EHUko ikerketa jarduera geografikoki asko hedatu denez, gestio sisteman ikastegi berriak barneratu dira, hala nola: Zamudioko Parkeko eta Enpresa mintegiko laborategiak.

Beste motatako hondakinak.

- *Papera batzea* (guztira): 104.600 kg inguru

Campusaren arabera (kilogramoak, gutxi gora behera)	2008. URTEA.	2007. URTEA.
Araba	19.700	24.000
Bizkaia	79.200	73.000
Gipuzkoa	5.700	5.000

Oro har aurren 2007.urtean baino paper kilogramo gehiago batu dira.

- *Hondakin erradiaktiboak*

ENRESAk egindako kanpoko gestioak apur bat igo dira 2007.urteetik hona.

- *Hondakin elektronikoak*

Elementu berria ekartzen duen hornitzailearen bitartez gestionatzen dira batik bat, eta hainbat kasutan deskontaminatzera eramaten dira zuzenean planta homologatuetera.

- *Bestelako hondakinak*

Zenbaitetan, honakoak erretiratu ditugu: aktibitate eskaseko hondakin erradiaktiboak, kekanpaien iragazkiak eta leherkariak izatetik gertu zeuden hondakinak.

2008an zehar ehunka kontsulta egin dira hondakinen gestioaren gainean eta ingurugiroarekin zerikusia daukaten beste alderdi batzuen gainean, eta oraindik kontsulta gehiago substantzia eta eraikinen jarduera-lizentziekin zerikusia daukaten gaien gainean.

8.- Gogobetetze-mailari buruzko inkesta

UPV/EHUko zerbitzuen erabiltzaileei zuzendutako gogobetetze-inkesta bat burutzea eskatu zitzaion duela gutxi kanpoko enpresa bati.

Inkesta pasatu zuen laginaren banaketa-taula aurkezten da jarraian, campusa eta kategoria kontuan hartuz:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA A
Irakasleak eta ikertzaileak	80	141	66	287
Administrazio eta zerbitzuetako langileak	22	51	23	96
GUZTIRA	102	192	89	383

Hondakinen gestioaren arloan 3,2ko gogobetetze indizea lortu da, 5 izanik gehieneko puntuazioa. Espero da etorkizunean indize hori handituko dela arrazoi hauengatik: dagoeneko hainbat neurri ezarri direlako, aurki beste horrenbeste ezarriko direlako eta ingurugiroaren gestioan hobekuntza neurgarria eman delako.

Ondoren argazki batzuk aurkezten dira, hartutako neurriak islatzen dituztenak:



Isurketen aurkako neurriak. Produktuak batzeko ontzi eramangarria.



Hondakin sanitarioetarako ontziak.



Hondakin arriskutsuetarako ontziak.

		PRODUKTUA: DISOLUZIO AZIDO ETA BASIKO SUKIOIAK.										
<p style="text-align: center;">C</p> <p style="text-align: center;">CORROSIVO</p>	IDENTIFICACIÓN DATUAK		Código/Kodea R.D. 833/1988 y R.D. 952/1997									
	Código L.E.R E.H.Z. Kodea		Q	R,D	L,P,S	C	H	A	B			
	1	6	0	5	0	6	Q5	D15	L-P5	C23-24-41	H8-3B	A871(4)
		FECHA INICIO ALMACENAMIENTO BILTEGIRATU ZEN EGUNA										
<p style="text-align: center;">F</p> <p style="text-align: center;">FACILMENTE</p>	IDENTIFICACIÓN DEL PRODUCTOR/EKOIZLEAREN DATUAK											
	Empresa/Enpresa			UPV/EH U		Departamento/Saila						
	Centro dirección Ikastegia helbidea											
	Localidad/Herria			Provincia/Probintzia								
	Teléfono/Telefona			Fax/Fax								
S.O.S. 112		GESTOR/KUDEAT ZAILEA		EKONOR S.A. , EU / 2/ 7-92								

Hondakin arriskutsuak izendatzeko etiketa-ereduak.

11.

ERANSKINAK

ERABAKIA, 2003ko APIRILAREN 7koa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, UPV/EHUren BERAREN PREBENTZIO ZERBITZUAREN ERAKETA, ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea indarrean jartzeak aldaketak eragin ditu administrazio publikoetan, lanpostuko arriskuen prebentzioaren bidez langileen osasuna babesteko politiken arloan, hain zuzen ere; izan ere, lege hori laneko araudi ez ezik, funtzionario publikoen estatutueta oinarritzko araudi ere bada.

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea garatzeko argitara eman zen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak, 14. artikuluan zehazten du 500 langiletik gora dituzten enpresek beren prebentzio zerbitzua eratu behar dutela, eta eratu ez ezik, prebentzioaren arloko jarduerak betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialak ere izan behar dituztela.

Hori guztia kontuan hartuta, langileen ordezkarietara kontsulta egin ondoren UPV/EHUko Campus Arteko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordearen bidez, adostasunera helduta CCOO, CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatueta prebentzioko ordezkarietara 2003ko martxoaren 7an, eta eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Prebentzio Zerbitzua eratzea.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua osatuta dago eta gerenteari atxikita egongo da.

Helburua.- Definizioa eta helburua.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatuta dago, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horretan aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkarietara eta campus arteko laneko segurtasun eta osasun-batzordeei.

Hirugarrena.- Jarduera-eremua

Prebentzio Zerbitzuak UPV/EHUko langile guztietara eragiten die.

UPV/EHUko errektoreak eta gerenteak zehaztu eta zainduko dituzte laneko segurtasun eta osasunaren arloko helburuak, unean uneko indarreko araudiari jarraituz.

Laugarrena.- Baliabide materialak eta aurrekontua

Aurrekontu-sail berariazkoak zehaztuko dira programa bakoitzetara, UPV/EHUko prebentzio-jarduerak abian jarri, egoki bete eta neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko, eta prebentzio-jarduerak betetzeko beharrezko instalazio eta baliabide materialak eskuratzeko, beti ere, aurrekontuetara buruzko araudiari jarraituz.

Bosgarrena.- Antolaketa

1.- Prebentzio Zerbitzua bi arlotan banatuta egongo da: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa. Zerbitzuan, beraz, alor desberdinetakoak arituko dira; baina elkarlanean arituko beharko dira urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoak, 15. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

1.1. Osasun Arlokoen zereginak laneko osasun, ergonomia eta psikosoziozia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak izango dira. Zeregin horiek betetzeko, eta indarreko araudiari jarraiki, Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU) izango ditu, hau da, UPV/EHUk gaur egun dituen hiru campusetako bakoitzak Oinarrizko Osasun Unitate bat izango du.

Gaur egun UPV/EHUko Osasun Zerbitzuan diharduten mediku eta erizainak Osasun Arloan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio-lana egiteko.

1.2. Arlo Teknikoan unibertsitateko goi-mailako lau titulatu arituko dira: Araba eta Gipuzkoako campusetan titulatu bana eta Bizkaikoan bi. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko VI. kapituluan jasotakoarekin bat, prestakuntza egokia izan beharko dute goi-mailako eginkizunak betetzeko prebentzioko berezitasun eta diziplinaren arloan, laneko segurtasun eta industri higienerari dagokionean, hain zuzen.

UPV/EHUko gaur egungo prebentzioko teknikariak Arlo Teknikoan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio-lana egiteko.

2.- Prebentzio Zerbitzuak zerbitzuburu bat izango du koordinazio eta gestio lanak egiteko.

3.- Arkitektura eta Obra Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, batez ere unibertsitateko azpiegituretan, sarreretan, eraikinen edo instalazioen segurtasunean, ebakuaziorako sistemetan edo antzekoetan neurri zuzentzaileak edo hobekuntzarako bitartekoak ezartzeko edo horien inguruko proposamenak egiteko.

4.- Kontratazio eta Erosketa Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, indarreko araudia betetzeko beharrezko diren ekipamenduak lortzeko, hain zuzen.

5.- Prestakuntzako arduradunak ere elkarlanean arituko dira Prebentzio Zerbitzukoekin laneko arriskuen prebentzioaren arloan beharrezko diren prestakuntza planak prestatu eta antolatzeke.

6.- Gerenteak koordinazio-lanak eginda, UPV/EHUko beste edozein zerbitzu edo langile (batez ere, irakasle eta ikerlariak) aritu ahal izango da Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan aholku emateko eta prestakuntza-planak osatu, antolatu eta emateko. Era berean, Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean aritu ahal izango dira arloan ospea duten beste profesional edo erakunde batzuk ere, aholku edo/eta prestakuntza emateko.

Seigarrena.- Osasun Arloaren eginkizunak

1.- Osasun Arloaren eginkizunak dira osasuna zaintzeko beharrezkoak diren zereginak betetzea, bai eta ergonomia eta psikosoziozia aplikatuarekin lotutakoak ere.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak, osasuna zaintzeari dagokionean, honakoak izango ditu oinarri: prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerei buruzko araudia (uztailaren 27ko 306/1999 Dekretua; 1999ko abuztuaren 20ko EHAA, 159. zk.) eta ergonomia eta psikosoziozia aplikatuari buruzkoa. Arlo honen eginkizunak, beraz, honakoak izango dira:

- a) Osasuna zaintzea eta sustatzea
 - osasun-azterketak egitea

- osasuna zaintzeko hartutako neurrien bidez eta arriskuen ebaluazioaren ondorioz lortutako emaitzak aztertzea
- haurdun edo erditu berri dauden emakumeek eta egoera jakin batzuetan aparteko sentikortasuna duten langileek dituzten arriskuen azterketak egitea
- lehen laguntzak antolatzea eta ematea, larrialdiak antolatzea eta egoera horietan laguntza ematea

b) UPV/EHUko langileen osasunarekin zerikusia duten faktoreen ondorioz eragindako lan-husteak gestionatzea eta kontrolatzea, eta hori horrela egingo da helburu bakarrarekin: gaixotasuna edo laneko huts egitea eragin duen faktorearen eta lan-guneak osasunerako izan dezakeen arriskuaren artean izan daitekeen lotura aztertzea.

c) Zaintza epidemiologikoa.

d) Giza harremanak, estresa eta depresioa.

e) Laneko baldintzak antolatzea, lanpostuen diseinua egitea, esfortzu-mugak eta laneko ingurugiroa.

f) Lortutako emaitzak aztertzea.

g) Agintzen dizkioten antzeko beste eginkizun batzuk, bai eta indarreko araudian zehaztutakoak ere.

Behar bezalako akreditazioa eta baimena duten zentro espezializatuekin azpikontratatu daitezke zerbitzuko oinarritzko osasun-jardueraz gaindiko zenbait jarduera, esaterako, diagnostikorako teknika osagarriak.

Zazpigarrena.- Arlo Teknikoaren eginkizunak

1.- Arlo Teknikoari honakoak dagozkio:

a) UPV/EHUko zentroetako arriskuen ebaluazioa egitea.

b) Osasun-arloarekin zerikusirik ez duten prebentzio-jarduerak planifikatzeaz gain, horretarako beharrezko diren programa eta planak egitea.

c) Istripuak eta ezbeharrak ikertzea, arrazoiak zeintzuk izan diren jakiteko eta, aurrerantzean, horiek saihesteko.

d) Ikuskaritza-lana egitea.

e) Industriako segurtasun eta higienearen arloko estatistikak egitea.

f) Jarduera zuzentzaileak proposatzea.

g) Larrialdietarako planak diseinatzea eta planak egiteko lanak koordinatzea.

h) Arlo honetako prestakuntzarako proposamenak egitea.

i) Ikuskaritza teknikoak eta gestiokoak egingo ditu, adibidez: prozeduren kontrola, praktika operatiboak, segurtasuneko arauak, obra berriak...

j) Indarreko araudiari jarraituz izan ditzakeen beste batzuk.

2.- Arlo Teknikoak laneko segurtasunarekin lotutako prebentzioarekin eta industria higienearrekin zerikusia duten eginkizunak izango ditu, eta zeregin batzuetarako behar bezala akreditatutako edo baimendutako zentro espezializatuak azpikontratatu ahal izango ditu.

Zortzigarrena.- Prebentzio Zerbitzuko buruaren eginkizunak

1.- Prebentzio Zerbitzuko buruari honakoak dagozkio:

a) Prebentzio Zerbitzuko arlo biak koordinatzea eta zuzentzea.

- b) UPV/EHUn osasuna sustatzeko eta laneko arriskuak prebenitzeko beharrezko diren jarduerak bultzatzea.
- c) Langileentzako informazio-programak eta prestakuntza-planak egitea.
- d) Arriskuen ebaluaziorako prozesua zuzentzea.
- e) Neurri zuzentzaileak planifikatzea eta ezartzea, batez ere, UPV/EHUko beste zerbitzu batzuk ere parte hartu behar dutenean.
- f) Prebentzio Zerbitzuan sortuko diren erregistro guztien gestioaren eta zaintzaren ardura izatea.
- g) Laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta beharrezko diren jarduerak egitea, gerenteak gainbegiratuta.
- h) Prebentzio Zerbitzuaren urteko txostena egitea.
- i) Prebentzioko neurriak ezartzeko lehentasunak zehaztea eta neurri horien eraginkortasuna kontrolatzea.
- j) Prebentziorako eskuliburuak eta prozedurak argitaratzeko eta banatzeko lanak zuzentzea.
- k) Prebentzio Zerbitzuaren web gunea zuzentzea eta gainbegiratzea.

Bederatzigarrena.- UPV/EHUko ikastegien parte-hartzea.

1. UPV/EHUko ikastegietako dekanok eta zuzendariak, administratzaileekin batera, honako zereginak dituzte:

- a) Ikastegian batzorde bat eratzea Prebentzio Zerbitzuarekin lotuta Gerentziak zehaztutako programa eta sistemak ezartzeko, horien bidez laneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak eta araudia betetzeko.
- b) Ikastegiko langileen kexu, eskaera eta iradokizunak konpontzea. Zailtasun teknikoak edo bestelakoak direla-eta hori posible ez bada, Prebentzio Zerbitzuko buruari emango diote guztiaren berri.

2. Ikastegian istripu edo ezbeharren bat dagoenean, administratzaileak berehala jakinaraziko dio Prebentzio Zerbitzuko buruari, eta horrek, era berean, Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordeari emango dio horren guztiaren berri.

Hamargarrena.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko kultura zabaltzea.

Kontuan izanda zein sakabanatuta dauden eta zein sare nahasia eratzen duten UPV/EHUko ikastegiekin, jarduerak antolatuko dira ikastegietako langile batzuek prebentzioaren arloko oinarriko prestakuntza izan dezaten, eta prestakuntza hori oinarri hartuta UPV/EHUko gainontzeko langileen artean laneko arriskuen prebentziorako kultura hedatu dezaten.

Hamaikagarrena.- Campuseko errektoreordeen, Ikerketa errektoreordearen, Kalitate Katedraren titularraren, Pertsonaleko gerenteordearen eta campusetako gerenteordeen jarduerak.

Aipatutako errektoreordeek, gerentearekin batera, eta kontuan izanda bakoitzaren eskumenak, laneko segurtasun eta osasunaren arloko eta ingurugiroaren arloko baldintzak hobetzeko beharrezko diren jarduerak zehaztuko dituzte.

Jarduera horien gestioa campuseko gerenteordearen edo Pertsonaleko gerenteordearen ardura izango da, kontuan izanda bakoitzak dituen eskumenak. Lan hori Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egingo dute.

Campuseko gerenteordearen kasuan, aipatutako gestio lana Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egiteaz gain, osasun-arloak eta arlo teknikoak campusean dituen kideen laguntza ere izango du.

Kalitate Katedraren titularrak eta campusetako Kalitate Programak bultzatzeko zuzendariak, beren jardueren esparruan, lehentasuna emango diete UPV/EHUko laneko segurtasun eta osasuna eta ingurugiroa hobetzeko jardueri.

Alor honetako erabakiak hartzeko eta gestioa egiteko, aipatutako agintariak beren eskumenen arloei dagozkien txostenak eska diezazkiokete Prebentzio Zerbitzuko buruari.

Hamabigarrena.- Campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeak

Prebentzio Zerbitzuko jarduerak campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeekin elkarlanean egin beharko dira. Prebentzio Zerbitzuari erabaki honen bidez eman zaizkion eskumenak ez dira izango aipatutako batzordeek dituzten eskumenen kalterako, eta, edozelan ere, indarreko araudian, Lan Baldintzak Arautzeko Akordioan, Hitzarmen Kolektiboan eta arloko gainerako araudian zehaztutakoa bete beharko dute.

Hamahirugarrena.- Indarrean sartzea

Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Manuel Montero

Errektorea